

# Euskaltzaindiaren araugintza 2012an

## Exonomastika

Europako toponimia nagusia aski xehe arautzeko langintza 2010ean bururik, gainerako kontinenteetako toponimia nagusia arautzeko lanari ekin zion Euskaltzaindiak 2011n, eta 2012an burutu du. Guztira, 6 arau oso onartu dira 2012an, hainbat ataletan banatuak, eta toponimiaren araugintzari bukaera emango dion astronimiari buruzko arauaren lehen atala ere onartu da.

Hona hemen arau horiei buruzko xehetasun nagusiak:

### **167. araua: Saharaz hegoaldeko Afrikako toponimia**

2012ko martxoaren 30ean onartua, Donostian

Afrikako toponimia bi sailetan banatu zen lantzeko. Lehenengoan, Afrikako iparraldea –arabieraren eremua– sartu zen, eta 164. arauan landu zen 2011n; bigarrenean, Afrikaren gainerakoa sartu zen, eta arau honetan bildu zen.

Zein lurralde-eremu handia den kontuan hartuta, oso leku-izen gutxi bildu dira arau honetara –49 leku-izen–, nagusi-nagusiak baino ez. Bi motatako leku-izenak dira: batetik, historiagatik, geopolitikagatik edo hedaduragatik ezagun eta garrantzitsuak direnak, hala nola *Biafra*, *Kalahari*, *Drakensberg* edo *Sahel*, grafia-arazo berezirik ez badute ere. Bestetik, nazioartean grafia-batasuna ez dutenak, eta, beraz, euskaraz idazteko orduan zalantza eragin dezaketenak, hala nola *Abisinia*, *Kabinda*, *Timbuktu*...

**168. araua: Afrika kolonialeko toponimia**

2012ko martxoaren 30ean onartua, Donostian

Toponimia historikoa bildu da arau honetan –48 leku-izen–; leku-izen horiek guztiak egun zaharkiturik badaude ere, ez dira desagertu, eta noiz-nahi agertzen dira Afrikako estatuen historiaz aritzean. Eskoletan ere ohiko ikasgaiak dira kolonizazioa eta deskolonizazioa, eta literaturan, komunikabideetan eta entziklopedietan ere agertzen dira.

XIX. eta XX. mendeetan Europako estatu boteretsuen mende geratu ziren Afrikako lurraldeak izendatzeko erabilitako leku-izenak dira. Haietarik asko hizkuntzatik hizkuntzara aldatzen dira, hizkuntza bakoitzak bere moldea baitu horrelako izenak adierazteko, hala nola *Hego-mendebaldeko Afrika Alemana*, *Piperbeltz Kosta*, *Volta Garaia*...

Era horretako izendapenak eratzeko erabilitako joserak-irizpideari buruzko argibideak ere ematen ditu arauak.

**169. araua: Ozeaniako toponimia**

2012ko martxoaren 30ean onartua, Donostian

Ozeaniako toponimia nagusia bildu da arau honetan. Ozeaniak oso eremu handia hartzen du, baina gehienbat itsasaldea da. Leku-izenei dagokierenez, esploratzaile europarrek emandako izenek osatzen dute, gehienbat, kontinenteko toponimia nagusia. Horren ondorioz, Ozeaniako toponimia nagusia ez da arazotsua, leku-izen asko berdin idazten baitira gure kultura-inguruneko hizkuntza guztietan, hala nola *Australasia*, *Bikini atoloia*, *Tahiti*, *Queensland*...

Beste izen batzuk, berriz, aldatu egiten dira hizkuntzatik hizkuntzara, eta horiei erreparatu zaie bereziki, euskarazko grafia finkatzeko. Adibidez, *Hawaii* (gaztelaniaz, *Hawái*; frantsesez, *Hawaï/Hawaïi*), *Sydney* (gaztelaniaz, *Sídneý*), *Leialtasun uharteak* (gaztelaniaz, *islas de la Lealtad*; frantsesez, *îles Loyauté*), *Koral Hesi Handia* (gaztelaniaz, *Gran Barrera de Coral*; frantsesez, *grande barrière de corail*; ingelesez, *Great Barrier Reef*)...

**170. araua: Amerikako toponimia**

2012ko apirilaren 27an, Bilbon, eta maiatzaren 25ean, Donostian, onartua

Ameriketako toponimia nagusia bildu da arau honetan –237 leku-izen–, hau da, Hego Amerika, Erdialdeko Amerika eta Ipar Amerikako leku-izen nagusiak. Dena den, izen askok arazorik sortzen ez dutenez, berdin idazten baitira nazioartean, ez dira sistematikoki sartu zerrendan, oso leku-izen nagusi eta ezagun batzuk izan ezik. Batez ere, hizkuntzatik hizkuntzara desberdin idazten direnak (itzultzen direlako, grafia-aldaerak dituztelako edo gaztelaniaz edo frantsesez exonimoak direlako eta, horrenbestez, euskaraz erabili beharreko grafia ezartzeko orduan zalantza egin litekeelako) bildu dira arauan.

Beraz, izen oso ezagun batzuk sartu dira, grafia-arazorik ez izan arren (*Aconcagua*, *Bering itsasartea*, *Hudson badia*, *Iguazú ibaia*...), baina, batez ere, gure inguruko erdara nagusietan berdin idazten ez direnak edo hizkuntza bakoitzera itzultzen direnak eta, ondorioz, grafia-zalantza eragin dezaketenak, bildu dira arauan, hala nola *Aintzira Gazi Handia* (gaztelaniaz, *Gran lago Salado*; frantsesez, *Grand Lac Salé*; ingelesez, *Great Salt Lake*), *New Orleans* (gaztelaniaz, *Nueva Orleans*; frantsesez, *Nouvelle-Orléans*; ingelesez, *New Orleans*), *Suaren Lurralde* (gaztelaniaz, *Tierra del Fuego*; frantsesez, *Terre de Feu*; ingelesez, *Tierra del Fuego*)...

Badira, gainera, leku-izen gutxi batzuk euskarazko berezko izena edo grafia dutenak, hala nola *Ternua* (gaztelaniaz, *Terranova*; frantsesez, *Terre-Neuve*; ingelesez, *Newfoundland*), hala erabili baitzuen Piarres Etxeberriek 1677an *Itsasoco nabigacionecoa* liburuan; edo *Kalifornia*, hala idatzi baita euskaraz hala Iparraldean nola Hegoaldean (Jean Etxepare, Nemesio Etxaniz, Luis Villasante, R. M. Azkue, Pierre Lartzabal, Orixe...).

**171. araua: Asiako toponimia**

2012ko ekainaren 29an, Bilbon, eta uztailaren 20an, Gasteizen, onartua

Asiako 331 leku-izen biltzen ditu arau honek, kontinente horretako nagusiak baino ez. Bi motatako leku-izenak dira:

Batetik, leku-izen garrantzitsuak edo oso ezagunak, nahiz eta grafia-arazorik ez izan. Adibidez, *Gobi(ko) basamortua*, *Hiroshima*, *Mandalay*, *Aral itsasoa*...

Bestetik, gure inguruko erdara nagusietan berdin idazten ez direnak edo hizkuntza bakoitzera itzultzen direnak, euskarazko grafia finkatzeko. Adibidez, *Samarkanda*, *Jammu eta Kaxmir*, *Ekialdeko Ghat mendiak*, *Malakako itsasartea*, *Barne Mongoliako Eskualde Autonomoa*...

Izen-zerrendez gainera, arauak eranskin zabal bat du, Asiako hizkuntza eta alfabeto ofizialen eta transkripzioen gaia konplexua baita. Eranskinean, Asiako estatu-hizkuntza nagusiei buruzko jakingarri batzuk ematen dira, eta Asiako estatu horietako leku-izenak euskaraz adierazteko orduan kontuan hartu behar diren irizpide nagusiak adierazten. Atal hauek ditu eranskinak: Afganistango hizkuntzak, bengalera, birmaniera, filipinera, Indiako hizkuntzak, indonesiera, japoniera, kazakhera, khmerera, kirgizera, koreera, laosera, Malaysiera, mongoliera, nepalera, Pakistango hizkuntzak, persiera, Sri Lankako hizkuntzak, tajikera, thailera, turkmenera, txinera, uzbekera eta vietnamera.

### **172. araua: Itsaslasterren izenak, itsasgune batzuen izenak eta Antartikako toponimia**

2012ko urriaren 18an onartua, Bilbon

Munduko toponimia nagusia amaitzeko, Antartikako leku-izenak falta ziren. Haiekin batera, munduko itsaslaster nagusien eta arrantza-gune garrantzitsu batzuen euskarazko izenak ere landu ziren, eta denak arau hone-tan argitaratu dira. Guztira, 43 itsaslaster, 4 itsasgune eta Antartikako 15 leku-izen biltzen ditu arauak.

Antartikako leku-izenen kasuan, nagusi-nagusiak baino ez dira jaso (*Mendi Transantartikoak*, *Eduardo VII.a Erregearen Lurralde*, *Haakon VII.a Erregearen itsasoa*...). Itsaslasterak izendatzeko, irizpideak lau sailetan zehaztu dira leku-izenaren egituraren arabera (*Golkoko itsaslastera*, *Ipar Atlantikoko itsaslastera*; *Itsaslaster Zirkumpolar Antartikoa*; *Humboldt itsaslas-*

*terra; Kuroshio itsaslasterra*). Itsasguneen kasuan, euskal arrantza-sektorerako garrantzia duten gune batzuk bildu dira (*Box Irlandarra, Sole Handia...*).

***Planetak eta planeta nanoak (173. araua: Astroen izenak)***

2012ko abenduaren 14an onartua, Donostian

Munduko leku-izen nagusiak arautu ondoren, Euskal Herriaz haraindiko toponimia nagusia amaitzeko, gure planetaz kanpoko lekuen izenei ere, astroen izenei, erreparatu die Euskaltzaindiak. Ezagutzen diren astroen kopurua etengabe handituz doa, eta, astro berriak izendatzeko, kodeak erabiltzen dira nagusiki. Nazioarteko izendapenak dira, eta ez dira, beraz, euskaraz berariaz aztertu behar. Badira, dena den, zenbait astro-izen –astrorik ezagunenei dagozkienak eta maizen erabiltzen direnak–, hizkuntzatik hizkuntzara aldatzen direnak. Izen horiek kontuan izanda landu da araua.

Araua lantzeko eta eztabaidatzeko, hainbat ataletan banatu zen langaia. 2012an, lehen atala landu eta erabaki zen: planeten eta planeta nanoen izenak landu ziren. Guztira, 23 leku-izen dira (*Artizarra, Pluton, Zeres...*).